



AKELARRE - N. Basterretxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpiritua agerpedeei, nortasun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

berria

MAHATSHERRIKO ALDIZKARIA

2000ko ekaina 23. zkia.

125 pzta.

Lege gordailua: BI-85-98

URTZI URRUTIKOETXEA

«Triste da euskaldun barriek ze urrun daukien berbetako errealidadea»



MENDEETAKO PROZESUAK

MIKEL ZABALA HISTORIADOREA



EUSKARAREN ZUBI ZAHARRETIK ETORKIZUNERA

IBILALDIA 2000



Lutxo Egia

«Hedabideek garrantzi gehiago eman diote Gabriel Aresti sariari olerki liburuari baino»

Edizio G. L. - Bilbo
BILBAO: BIGOÑA



MAHATSERRIKO UMEAK NON?

Oraingo erretratu honegaz mende hasierara goaz. Han dekoguz umetxuok, itxuraz gure garaiko txikitxuakaz antzik bez baina garai guztietako umeen igual-igualak. Hor dagoz euren alkondara eta brusoiak jantzita kamiño erdian planta eta argazkia noiz egingo ete deuten begirre. Hemen dira atzeko baserriak eta etxeak zeintzuk diran be ez dakigula. Han eta hemen ibili gariez preguntetan eta alperrik. Ezin jakin. Inork esango ete deusku nongo bazterrak diran erretratu honetakoak? Bakizue non gagozan.

Erretratu Román Alonso eta Luis Amannen
"Bilbo eta bere itsasadarreko herriak postatxarteletan" liburutik hartua da.

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1.
ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@mail.com

ZUZENDARIA

Hektor Ortega
ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Joana Martínez,
Joana Etxebarria,
Irene Berro,
Iratxe Ruiz,
Leire Altamira,
Erdoitza Martínez
Unai Cuevas

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta
Xabier Herrera

**DISEINUA ETA MAKE-
TASIOA:**
Iñaki Berastegi,


KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia,
Itxaso Perez,
Alberto Ugarte,
Iñaki Gaminde,
Igor M. de Vidales,
Santutxuko Bertso
Eskola,
Igor Zorrozueta,
Iñaki Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA
ETA PUBLIZITATEA:**
Koldo Urrutikoe-
txea, Joxe Garcia

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.000



| | | | |
|-----------------------------|----|---------------------------------------|----|
| ▶ Iritzia | 4 | ▶ Mahatsberriak | 20 |
| ▶ Ibilaldia | 5 | ▶ Hezkuntza | 24 |
| ▶ Begoña eta Euskerea | 8 | ▶ Bidean Gora, Mendi Ibilbideak | 26 |
| ▶ Lantegi Batuak | 10 | ▶ Kirolak: Azkenengo berriak | 27 |
| ▶ Mikel Zabala | 12 | ▶ Kultura: Arkaitz Estiballes | 28 |
| ▶ Bakarka: Lutxo Egia | 15 | ▶ Horoskopoa/Agenda | 30 |
| ▶ Inkesta | 19 | ▶ Hileko Argazkia | 31 |


Poeta asko oingoan gero! Lutxo Egia, Urtzi Urrutikoe txea eta Arkaitz Estiballes (Bertsoak egittie bere poesidxe da, ezta? Batemat konforme ez ba dago, esan deidxela ba!) Eta poesidxerik handixena honek aborijenak egitten dau. Ze, ixen bere, poesidxe da holan eskribidutie. Hau de, norberan burutik pasetan direzen kontuek inok ez aittuteko moduen ipintie. Ta inok ez aittuteko moduen diñot, ze akabuen hemeko euskerie egittie inok ez aittutie da (Batemat konforme ez badago, esan deidxela ba!). Ze, gitxi aittu bide norberari aborijena geittuteko. Aborijenak danok garez-eta, ainbateko aborijenak (Batemat konforme ez badago, esan deidxela ba!).

Ta artistak bere asko hemen, Isozaki bera bere bai, ze hori apellidue hemekoa ixen bide, aborijena beraz (Batemat konforme ez badago, esan deidxela ba!). Ta aborijen batzuek egitten deittuez obra handixek, ehun pisuko dorreak edo poesi laburrek, baie handixek danak. Ta beste batzuek obra txikitxuek egitten doguz, (ab)orijinalak batzuetan, eta abrosiduteko modukoak gehidxenetan.

Ta Aborijen kultuek ta aborijen inkultuek ei dagoz, ta kultuek daukien kulturie ez daukie inkultuek, ta bixebersa (ala bixebertso?) Aittu da, ezta? (Batemat konforme ez badago, esan deidxela ba!).

Firmaute: Ainbateko Aborijena

Begoñako Alberca doktoarearen kalearen esanguraren inguruan



Kale txikia dogu hau. Begoñaldeko Zurbaranen dago; Larrazabal baserria egon zan lekuaren eta izen hori hartu dauan etxe-multzoaren ondoan aurkitzen da.

Alberca doktoarearen kaleak batzen dauz Zumaia kalea eta Guridi musikariaren plaza; kale biak batzen dauazan gunea Zumalakarregi etorbidea dogu.

Kale honek osagile bizkaitar guren baten izena dau: Enrike López de la Alberca eta Unibaso jaunarena. Osagile hori 1881. urtean jaio zan, eta 1952an hil. Erditze eta Urikoen Etxearen zuzendaria izan zan; horrezaz ganera, José Entrecanales Pardo doktoarearen laguntzailea izan zan "Gota de Leche" ("Esne Tanta") erakundean, berau 1907.

urtean erakunde horren zuzendari izendatu eta gero.

Izan bere, erakunde horreek biok oso lotura estua izan eben alkarregaz. Erditze eta Urikoen Etxea, ize-nak berak agertzen dauan legez, jaiotzeko tokia ez eze, lekua zan, kajako, uriko, sasiko eta beste izen gitxiesgarri batzuek izentzen ziran umeak bertan behera ixteko. Umeak gehienetan, andrazko ezkonbakoak ixten ebezan, orduko gizarteak ezarten eutseezan oztopoei aurre egitea ezinezko jaken eta.

GOTZON LOBERA REVILLA, Euskara Sustatzeko Zuzendari Nagusia (Kultura Saila - Bizkaiko Foru Aldundia)



**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:
 Abizenak:
 Kalea: Zenbakia: Solairua:
 Herria: Herrialdea: Posta Kodea:
 Telefonoa:
 Bankua:
 Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura



EUSKARAREN ZUBI ZAHARRETIK ETORKIZUNERA

2000ko Ibilaldia Balmasedan ospatu zuen milaka euskaltzalek

Bizkaiko ikastolek euskararen alde urtero ospatzen dute Ibilaldia eta aurten Balmasedako Zubi-Zaharra ikastolari iritsi zaio txanda. Eskualde honetan, Enkarterrietan, euskararen egoera ez da batere ona eta horregatik denon artean esfortzu bat egin behar da euskararen egoera normaldu daiten.

**Testoa: Joana Etxebarria
Argazkiak: Iñigo Azkona**

Horrela, gogotsu eta ilusioz beterik, prestatu zuten festa Balmasedako ikastolakoek. Eta beraien nekeak merezi izan zuela baieztatu zuten, pozarren agertu baitziren herria jendez gainezka ikustean. Izan ere; 100.000 pertsona inguru hurbildu zen bertara. Nola ez, poza eta algara zen nagusi jendartearen, giro paregabea zegoen ikastolen festa guztietan ohi bezela. Batzuk, kirolarienak, zortzi kilometrotako ibilbide osoa egin zuten baina beste asko eta asko, ia beti gertatzen den bezela, egitaraua hartu, gogoko kontzertuak non dauden begiratu eta zuzen zuzenean gune horretara joaten dira. Gero han aukera oparoa dago: eserita bokadilo eder bat jan, gorputza musikaren erritmoa jarraituz mugitu eta txosnan dirua gastatu, besteak beste.

NAHI BESTE EKITALDI
Antolatutako ekintzak ugariak eta gustu guztietakoak

izan ziren. Umetxoentzat goizalde partean pailazoak, gazteentzat musika kontzertu eskaintza zabala (Alaitz eta Maider, Urtz, Split 77, Zea-mais...) eta nagusiagoentzat adibidez Iluntze abesbatza. Eta nola ez! Euskal Herrian egonda; trikitalariak, euskal dantzak, herri kirolak, bertsolariak eta abar amaigabe bat. Beraz, ekintza guzti hauek egonik aspermenak ez du tarterik izaten.

EGURALDI ONA LAGUN
Bestalde, euriaren arriskuak beldur pixka bat eman bazuen ere eguraldia ateri mantendu zen arratsaldeko azken orduetan izan ezik. Badirudi, euriak oraingo honetan beste batzutan ez bezela festa patxadaz ospatzen utzi zuela. Eguraldia ondo portatu bazen ere, arazoak egon ziren garraioekin batez ere trenarekin. Jende kopuru izugarriak erabaki zuen, antza denez, garraio pribatua erabiltzea



OMENALDIA

Gainera, Ibilaldiak Zuzenbide arloan euskararen garatze prozesuan aitzindari izan diren 14 euskaldun omen-du nahi izan zituen. Baina orain arte egindako lana saritzeaz gain bide berdinetik jarraitzeko eskakizuna ere egin zieten antolatzaileak. Omendutako pertsonak honako hauek izan ziren: Abel Muniategi, Patxi Zabaleta, Andres Urrutia, Xanti Goñi, Iñaki Agirreazkuenaga, Garbiñe Biurrun, Jaime Tapia, Nekane San Migel eta

eta horregatik atzerapenak eta jende multzo pilaketa handiak egon ziren. Antolatzaileek esan zuten, trenaz gain, egun guztian zehar 11.000 auto eta 380 autobus gerturatu ziren Balmaseda ingurura.

Festak Zubi-Zaharra ikastetxeko patioan izan zuen hasiera goizeko 9.30tan, instituzioetako kideak bildu zirelarik bertan. Ikastolako ikasleek beraien aldetik, dimentsio erraldoietako puzzle bat osotu zuten "Mendez mende, zubiak eraikitzen" lema idatzirik zeukana.



Xabier Arzalluz besteak beste. Zubi-Zaharra ikastola 1972an sortu zen eta egun 224 ikasle dauzka. Azken urteotan matrikula gorakada itzela lortu du. Ibilaldian lortutako dirua ikastetxea konpontzeko erabiliko da.

Horrela eguna bere bukaerara iritsi eta etxera bueltatzeko ordua ailegatu zen. Urtebetez itxaron behar da Ibilaldia berriz ospatzeko. Baina Jose Mari Agirre Balmasedako ikastolako zuzendariak Bilboko Abusu auzoko ikastolari pasatu zion testigua. Beraz, denok lasai



Ehun mila lagun hurreratu zen Balmasedara euskararen alde.

Datorren urteko Ibilaldia Bilboko Abusu ikastolak antolatuko du.



gera zaitezte hurrengo urtean ere jai paregabe bat izango dugulako. Arantza Urresti Abusuko zuzendariak esan zuenez orain dela sei urte Ibilaldia beraien esku egon zen eta oso orotzapen onak gordetzen dituzte. Horregatik gogoz gainezka dagoz ikastolen jaia ahalik eta hoberen prestatzeko.



LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

Telefonoa:
(94) 669 32 79
Mugikorra:
908- 45 16 22



SANTVTXY SPORT

Azken urteotan Mendebaldeko euskera edo bizkaiera, ilunpetatik urteten hasi dala dirudi. Horra hor Mendebalde Kultur Alkartea, Egunkariaren Bizkaia osagarria, herri aldizkariak, edota argitaratzen dabizen hainbat lan eta eritxi.

Gaur eritxi honeetariko bat dakargu gure atalera, Urtzi Urrutikoetxearena.

«Tristeia da euskaldun barriek ze urrun daukien berbetako errealidadea»

Begoña eta Euskerea


I.Gaminde, I. Martin de Vidales eta K. Urrutikoetxea

Berton.- Argia aldizkarian bizkaierari buruzko artikulu luzea idatzi dozu, zelan ikusten dozu Bizkaian herri hizkeraren etorkizuna?

Urtzi.- Azken urteotako prozesua argia da, batua-bizkaiera ez da gehiago gatazka moduan agertuko, ezpadaze lekuak definitu beharrean. Ez dago zalantzarik behar garrantzitsua egingo dauala Egunkariako gehigarriak, Bizkaia Irratiak egin dauala, herri hedabideetatik egiten eta egin behar dala... horrek herriko berbetara hurbildu behar dira, baina kontuz, eredu dan berbetea euki behar dabe, ez herrikoa berbera. Herri berbetea, euskalkiak, hizkera jasoko iturri izan behar dabe, euskera batuak be hortik edan behar dau. Horrek argi dago, itzulerako prozesua euki behar dau, herri hizkera, euskalki eta euskeraren beraren duintzeak ez deusolako lekuri egingo gure nagusiek erderagaz lotuten dabezan gaiakaz. Hor behar garrantzitsua daukie hizkuntzen eredugileak, eta ez dira akademiak, ezpadaze mediak, geroz eta globalagoa dan munduan joan-etorriko bide hori egiteko, nondik edan eta hori iragazita emon.

B.-Begoñako euskerea dakienek 50 lagun baino gehiago ez dira izango. Hainbat lekutan herri hizkerea galtzeak, zelango ondorio euki leike?

U.- Ondo begituta, Bizkaiko mendebalde osoko altxorra daukan arriskua da, hurbilen ikusita Bilbo, Basauri, Arrigorriaga, Etxebarri, Erandio eta inguru horretan... argi dago galtzen dan pertsona bakotzak mundu ikuskera bat, pitxi handia daroala beragaz,



atzera lortuteko modu barik. Ondorioa hori guztia da, eta belu da hori eteteko, argi dago nonoz begoñera eta abar deitu jakienak heriotzea idatzita daukiela, baina bestaldetik, geroz eta gehiago isoglosan mapa horreik balio gitxiago daukiela be pentsetan dot, harremanak herriz herri gehiago dira eta orduan alkarren desbardintasunak gitxitu egingo dira bizi-bizirik dagozan azpieuskalkietan be. Tristeena euskeldun urteten diren gizaldi barriek -eta pozgarria da euskeldun barri horreik egotea, gau-eskola edo hezkuntza arautuaren bidez- ze urrun daukien berbetako errealidadea, eta ezin da espero danak hizkuntzalariak izatea, tresna komunikatiboa da batez be hizkuntzea, halandaze...

B.- Non ikusten dozu egoki erabiltzea batua eta non euskalkiak eta herri hizkera?

U.- Zentzu teorikoan begituta, herri edo herrialde mailarako bertako berbetea beharko litzateke, eta koinéa, euskera batua, nazio osora bideratutako gai eta hedabideetan. Baina hori egoera normaldu eta guztiz euskeldunean izango leiteke, Suitzan gitxi gora behera pasetan dana, bertako dialektu eta alemaniera batuagaz. Argi dago gurean gitxi batzuk oso ondo alfabetatu zizala bizkaieraz eta batura hurbilpena eginda daukiela, beste batzuk ez dira sekulan alfabetatu euskeraz baina horreik dira berbeta bizi eta aberatsena daukienak, eta gazteenok barrez, euskera batuan alfabetatuta, gehiago gitxiago, burua-edo banatuta daukagu bizkaiera berbetarako eta idatzi batuan, sarritan modu obsesiboan be bai. Hori apurtu behar da eta hasierako zentzu teorikorantz jo, baina desbardina da Bizkaia osorako behar egin, Lea-Artibai eskualderako edo Bilbon, eta zeresanik ez Barakaldon edo Balmasedan.

B.- Zure ustez zelako euskera mota erabili beharko genduke Begoña eta Euskerea orrialde honeetan, eta zelan idatzi?

U.- Hil zorian dagoan berbeta batez dihardugu, beraz ahalik eta gehien gorde, museo zentzu triste horretan bada be, aberasgarria izango da. Alde horretatik, oso behar garrantzitsua da hilero-hilero lekukotasuna bere horretan emotea, eta asko hartu leiteke horretarako berbetea osasuntsuago daukien lekuetako egindako esperientziatik: Eibarren, Arrasaten... Getxon be bertoko euskeldun izateko zortea daukie. Hortik aurrera eredu finkatu beharko leiteke, bustiduran transkripzioa zein dan, dagoan ortografia errespetatu eta koherentziari eutsi testu guztiantan. Beti be testu filologiko hutsa ez dala be kontuan, jendearengana ailegetako ezagututen dauan ereduari hurbildu behar jakolako. Eta idazten dauanari jagokonez, bizkaiera batua oso egokia izan leitekeela pentsetan dot, malgutasunez hartuta, baserrietan edandakotik bustita testua, baina jendearentzat -eta etorkizunerako- eredu eta lekukotasun garrantzitsua dala ahiztu barik, eta horregatik, koherentzia eta ulergarritasun horri be arretea iminda.

Gaur egun bertan bizi garean euskaldun gehienok euskaldun berriok garean lez (bai inguruko ikastoletatik, bai euskaltegietatik urtenekoak) batua da gure Mahatserrian gehien darabilgun berbatea. Batuak gure gizartean deukon garrantzia ezelan be ukatu barik, atal hau idazten dogunok uste dogu bertoko euskerea be inportantzia handikoa dala eta galtzen utzi ezin dogun ondasuna dala (doakiola emetik egunkariari gure txalorik beroena Bizkaia gehigarria ateratzearren). Benetan euskerea bizi daiten gura badogu euskal aldaera edo barietate guztiak behar doguz, orrek emoten deusalako indarra eta espresibitatea gure hizkuntzari. Hori dala eta, gure berbetea ezagunagoa izateko eta euskaldun berrien artean be zabaldu daiten, beharrezko iritzi deusagu Begoñako euskeraren barri emoteari. Ea gustetan jatzuen.

BEGOÑAKO BERBETEA (1) ADITZ LAGUNTAILEAK (I)

Begoñako berbetearen ganerako lehen atal onetan izan aditzaren paradigmak azalduko doguz, gero behean ariketatxo bat ipiniko deusuegu agertzen direan esaldietan aditzak begoñako eran ipini dagizuezan. Animatu zaitzeze, ikasi eta ahalegindu erabilten!. Errazak dira eta.

IZAN ADITZA

| Orain | Lehen |
|----------------|-------------------|
| ni naz | ni nitzen |
| hi gaz | hi entzen / gazen |
| ha da / de | ha zan |
| gu gara | gu gentzen |
| zu zara | zu zentzen |
| zuek zarie | zuek zentzien |
| hareik di(r)ez | hareik zien |

| Hika (2)(orain) | Hika (lehen) |
|-----------------|-----------------------|
| ni nok | ni n(e)itzoan |
| ha dok | ha zoan |
| gu gozak | gu gentzoan/gozaken |
| hareik dozak | hareik zoazen/dozaken |

ESALDIAK

Ni hi baino altuoa _____, baina hi nire lagunek baino handixoa _____.

Atzo merkature joan _____ ama ta bidxok.

Hareik bidxar joango _____ etxera.

Zuek ha mutile baino zarrakoak _____.

Hareik lehen hi baino lodixakoak _____.

Zu lengo eguneian ez _____ otxarkoagara joan.

(1) Emen agertutako datuak Iñaki Gaminderen Bilbo berbaz berba liburutik jaso doguz

(2) Gizonezko formak baino ez doguz jaso, Begoñan andrazkoen hitanozko formak ez direlako ibiltzen.

LANTEGI BATUAK FUNDAZIOA:

Gizarte proiektua eta errealitate enpresariala



Leire Altamira

Denboran atzera oso urrun joan gabe, gabezia ezbardinak aurkezten zituzten gizabanakoek nolabaiteko bazterketa sumatzen zuten gizartean, baina diskriminazio hau are nabariago suertatzen zen lan munduan. Gaur egun, oraindik ere badugu horrelakorik gure artean baina badirudi guztion errespetu eta onarpen mailaren garapenari eta, batik bat, pertsona hauen alde egunero gogor lan egiten ari diren elkarte zein enpresei esker egoera zertxobait aldatuz doala. Hori dela eta, gabeziaren bat dutenen etorkizun laborala baikorrago agertzen da gure begien aurrean.

Helburu honekin irabazi asmorik gabeko erakunde bat sortu zen 1983an, Lantegi Batuak. Hasiera batean Gorabideren (Gabezia Psikikoa duten Pertsonen Aldeko Bizkaiko Elkarte) babesean jaio zen eta elkarte honetako gurasoen ekimenez, beraien seme-alaben etorkizunaz kezkatutik, tailerrek ireki zituzten Bizkaiko eskualdeetako hainbat herrian. Lehenengo urte horietan, lanak ez ziren konplexuegiak, baina apurka-apurka profesionalizatoruntz abiatuz joan ziren. Era honetan, 1998ko

urtarrilean Lantegi Batuak fundazio bezala eratu eta nortasun juridiko propioa hartu zuten.


Izatez, fundazio hau Bizkaiko herri batzutan sakabanatuta dauden hamahiru tailerrek osatzen dute: Derio, Etxebarri (bi tailer), Basauri, Erandio, Sestao, Zalla, Gernika, Markina, Abadiño eta Bilbo (hiru tailer). Hain zuzen ere, Bilboko Errekalde eta Garamendiko tailerrek batera, Mahatserrikook ere badugu honelako lantegi bat Otxarkoagan. Era honetan, lantegi guzti hauek 1.400 pertsona inguru

dituzte, zeintzuen artean 1.217k gabeziaren bat duen, fisiko, psikiko zein sensoriala. Dena den, gehiengoak ezintasun psikikoa erakusten du.

MOLDEZ ENPRESA ARRUNTAK

Guztiei ere, trebakuntza, okupazio eta enplegu-aukerak izateko bidea errazteko enpresa egitura bat eskaintzen zaie. Askok pentsa dezake lantegi hauek eraketa oso ezbardina izan beharko luketela; ordea, funtsean gainerantzeko enpresa klasikoen molde eta funtzioak dituzte. Agian, besteengandik bereizten duen elementu gutxien artean gabezia psikikoa dituzten langile hauek orientatzeko eta lan konkretuetan trebatzeko departamentua litzateke.

Bestela, beste zenbait enpresetan lez, honetan bi arlo bereiz daitezke: batetik, Industriakoa eta bestetik, Zerbitzuetakoa. Lehena, Lantegi Batuak-eko jarduerarik nagusia osatzen duen heinean, enpresa kopuru handi bati osagaiak eta azken buruko produktuak hornitzeaz arduratzen da.



LANTEGI BATUAK

Bigarrean bezeroek (sektore publiko zein pribatuetakoak) zerbitzu eraginkor eta lehiakor bilatzen dute iharduera hauetan: lorezaintzan, bide garbiketan, zuzeneko publizitatean, pintaketan...

Azken finean, Lantegi Batuak-etik zerbitzu indibidualizatu eta integrala eskaintzen zaio gabezia daukan pertsonari: orientazioa, okupazio gunea eta enplegu gune berezia, baita laguntza ere enpresa arruntetan lanean txertatzeko prozesuetan. Zentzu honetan, ibilbide honen amaieran gabezia ezberdineko pertsonak lan ingurune arrunteko enpresetan labo-

ralki integratu ahal izatea legoke. Hain zuzen, integrazioa gaur egun errealitate bat da, eta gero eta langile kopuru handiagoa aurkitu ahal da Bizkaiko enpresetan.

Beraz, hauxe izango litzateke gauzarik ikusgarri eta idealena Lantegi Batuak-en prozesuan: "gabezia daukaten pertsonen integrazio sozial eta laborala sustatu eta lortzea", kolektibo honek lana kontsidera-

tzen baitu gizartean txertatzeko tresna garrantzitsuenetariko bat.

Otxarkoagakoa:

Lantegi Batuak
C/Pau Casals, 19 - behea, atzekaldean.

48004 Bilbo(Bizkaia)

Tel./ Fax: 94 412 87 83 / 94 473 46 22

Deriokoa (Bulego Zentralak):

Lantegi Batuak
Artxanda kalea, 7
Poligono Neinver

48160 Derio (Bizkaia)

Tel: 94 452 01 02 / 94 452 04 14

Fax: 94 452 12 84

Bazkide txartela

| | |
|----------------|-----------------------|
| Izen deiturak: | ENA zenbakia: |
| Helbidea: | Herria: Posta kodea: |
| Telefonoa: | Lanbidea: Jaioteguna: |



Partehartze mota:

- Bazkide soila
- Ekintza jakinetan laguntzaile
- Lantaldeko partaidea

Ordainketa:

Kontu korrante bidez

Asapalaren kontuan

3035 0071 6 071 105864 2

Kuota korrante bidez

- 500 pta
- 1000 pta
- 2000 pta
- pta




Sorginkeria eta politikaren arteko loturak

XVI-XVII. MENDEETAKO PROZESUAK LIBURU BATEN BILDU DITU MIKEL ZABALA HISTORIALARIAK

Hektor Ortega / argazkiak: Iñigo Azkona

XVI. mendeko politikagintzaren eta sorginkeri prozesuen arteko lotura estua dira Mikel Zabala historialari mahatsorriak argitara emandako liburu berriaren gai nagusia. "Brujería e Inquisición en Bizkaia (siglos XVI-XVII)" izeneko lanaren orrietan zehar geure herrialdean gertatutako kasu batzuk zehatz-mehatz azaltzen ditu, inguru sozio-politiko eta bestelako interesak ahaztu barik. Bizkaiko prozesuak kaparetasun orokorraren auziarekin harreman estuetan agertzen zaizkigu.



Argazkia: Iñigo Azkona

Mikel Zabala santutxuarrak ekaineko Liburu Azokarako eman du argitara "Brujería e Inquisición en Bizkaia (siglos XVI-XVII)" liburua. Mende biotako auziak batu eta aztertu ostean, ez du zalantza izpirik. «Prozesuak arrazoi politikoak zirela medio egin ziren. Ez da kasualitatea garai hartantxe mugaz bi aldeetan holako errepresioa erabili izana», argitzen du. Izan ere, Bizkaian legez, garai hartan Nafarroan eta Lapurdin sorginkeria salaketa eta auzi hain ospe-

tsuak gertatu ziren ezen euren oihartzuna gaur arte heldu den.

Inkiszioa erabili zuten garai hartan errepresiorako bitarteko gisa. «Zuzenean erlijioitsuak ez ziren interesen zerbitzuan jarri zuten. Esate baterako Nafarroa konkistatu berriko mugan tirabirak sortu zirenean Inkiszioa tresna ezinhobea izan zen». Duda izpirik ez dago garai hartan Eleizaren auzitegi ospetsuak Gaztelaren interes politikoen esanetara jardun zuela. Biz-

kaiko kasuan, oster, bestelako elementurik be bada tartean. Hemen Inkiszioa «goi mailako taldeek erabili zuten sinesmen kontuetan baino gehiago euren jukutriak egiteko».

Historialari santutxuarraren uste-tan, Bizkaiko prozesuak kaparetasun orokorra -erdarazko *hidalguía universal*, bizkaitar guztiak berez nobleak zirela alegia- kontzeptuagaz estu-estu lotuta egon ziren. «Gaztelako zenbait botere sailetan

noblezia bizkaitarra zalantzan jarri zuten uneetan holako prozesuak bultzatu zituzten agintari bizkaitarrek», azaltzen du. Ikertutako kasuen artean badago Inkiszioak bere garrantzia gutxietsi eta murriztu nahi izan zuena. Orduan Bizkaiko foru agintariek dimentsio handiagoa eman zioten prozesuak aurrera segi zezan. «Helburua zen bizkaitarrak gainerako tokietakoak baino garbiagoak zirela demostratzea», dio Zabalak. Kaparetasun orokorraren fenomenoari oinarri sendoa eman nahi zioten horrela.


AKELARRE KLONIKOAK

Orain artekoak fenomenoaren arrazoi sakonak baldin badira, prozesu bakoitzak bere "zergaitiak" behar ditu. Bizkaiko salaketa gehienek "akelarre arruntak" dituzte oinarri. Akerraren inguruko kultuak, beraz. «Sineskeriak egon bazeuden, duda barik, baina inportanteena da bakar-bakarrik kasu eta une konkretu batzutan izan zirela auziperatuak», zehazten du Zabalak.

Bestalde, salatuen testigantzei erreparatuta historialari gazteak «literatura ere tartean badela» uste du. «Ustezko akelarreak kontatzerokotan antz handiko ospakizunak kontatzen dituzte akusatuek dela hemen, dela Nafarroan, dela Lapurdin», dio Mikel Zabalak. Xehetasunetan be alde gutxi dago kasuz kasuko lekukotasunetan. Ezaugarri honek oso susmagarri bihurtzen ditu prozesuetako testigantzak eta «deklarazio induzituak» izan zirela pentsarazten du.

AMA BIRJIÑA EUSKARAZ

Bada, gainera, manipulaziorako beste eragile aparta bat: hizkuntza. Prozesuak eta epaiketak erdara hutsez egiten ziren bitartean auzi-



peratu eta lekuko gehien-gehienak euskaldun hutsak ziren. «Derrigorrez faktore garrantzitsua izan behar zuen itzulpenen bidez funtzionatzeak», ziurtatzen du.

Bestalde, hizkuntzak ez ziren berez erregistro neutroak. Gauza arrunta zen, deabruak herritarrei euskaraz egitea, prozesuetako agiriak irakurrita behinik behin. «Ez da normala, oster, Ama Birjiñak be euskaraz egin izana esatea eta Bizkaiko kasu batean horrela izan zen», dio Mikel Zabalak.

Bizkaitarrak gainerakoak baino garbiagoak zirela demostratu gura zuten

Tokian tokiko arazoak be tartean izaten dira prozesu judizialak zabaldu zirenean. Esate baterako, Zeberioako auziak «auzoen arteko liskarra euki zuen oinarri», argitzen du Zabalak. Izan ere, mendialdeko eskualdeak izan ziren sorginkeri auzi eta pertsekuzio gehien jasan zuten aldeak. «Portuetan eta kostaldean Inkiszioaren jardunak beste helburu batzuk zituen, luteranismo kasuak esate baterako», segitzen du.



BERTON: Santanderren jaioa zara. Zelatan Mahatserrian?

EGIA: Ama Santanderrekoa eta aita Amurriokoa izanda, Bilbora ezkondu ziren, eta ni betidanik Mahatserian bizi izan naiz, Begoñaldean.

B: Ze eragin izan du zugan Gabriel Aresti XVII. saria irabazteak? Bestelako literatur saririk irabazi al duzu?

E: Gauza batzuk ikasi izan ditut, batez ere, horrelako sari batek zer nolako eragina izan dezakeen. Abenduan "Kalezuloko animalien itzalak" haurrentzako poesia liburua kaleratu nuen, eta hainbat komunikabidetan nahiko islada izan zuen, baina niri dagokidanez, hedabideek garrantzi gehiago eman diote Gabriel Aresti sariari, poesia liburuari baino. Honek, nire ustez, euskal literaturak gure artean zer nolako toki eskasa duen adierazten du. Bestelako saririk ere izan dut. Orain sei-zazpi urte

«Ez dut neure burua poetatzat hartzen, poesia anekdotikoa da niretzat»

Gabriel Arestin ere accesita lortu nuen, besteak beste.

B: Zein gai tratatzen duzu olerkietan? Ze olerkigintza estilotan sailkatuko zenuke zuk egindakoa?

E: "Kalezuloko animalien itzalak" liburua haurrentzako poema laburrez dago osatuta, bertan batez ere irudiak landu ditut, metaforak... baina, azken batean, irakurketa ulerterraza da. Bestetik, poema hauek badago bigarren irakurketa bat, ironia sartu nahi izan dut eta umeak beharbada ez dira hortaz ohar-tuko. Beraz, ume zein helduentzako liburua izan daiteke.

Olerkigintza estiloari dagokionez, orain arte haurrentzako poemak egin izan ditut. Bestelako poemak ere idatzi ditut baina ez ditut argitara eman momentuz nahiko materialik ez dudala uste baitut. Hainbat aldizkaritan idatzi izan dut, "Maiatz" Iparaldeko aldizkarian, Ermuko lehiaketara ere olerkiak bidali ditut... azken batean, poesia sinbolikotzat jotzen dut orain arte idatzitakoa.

B: Zelan ikusten duzu euskal olerkigintzaren mundua, etorkizun oparorik al du?

E: Batetik, ez dut nire burua poetatzat hartzen, poesiarena niretzat anekdotikoa da. Bestetik, Euskal Herrian badaude poeta onak, zein poema liburu onak, baina gaur egun esan beharra dago nahiko jenero marjinala dela, batez ere, irakurleagoari dagokionez.

Gaur egun umeentzat ipuinak eta helduentzat eleberriak nagusitzen dira, eta gainera, askotan, irakurtzen diren lanak bestellerak izaten dira.

Nik, Miren Agur Meaberen "Azalaren kodea" irakurri berri dut eta poema batzuk izugarri gustatu zaizkit.

B: Aukerarik ematen al zaie poemagile gazteei? Olerkigintzan aritzeko baliabide nahikorik eskaintzen direla uste duzu?

E: Badaude beka batzuk, baina niretzat interesgarriena lehiaketak dira. Lehiaketetan idazle kontsakratu direnek ez dute partetik hartzen. Bai

ordea, ibiltzen hasiak direnak, jende gazteari aukerak emanez. Hauek euren poemak aurkezten dituzte. Hala ere, lehiaketak bere alde txarrak ere baditu.

B: "Lo del amor es un cuento" ipuin antologian parte hartu duzu. Zuk horrela ikusten duzu?


E: Liburuaren izenburua hitz joko bat da. Bertan zortzi idazlek hartu du parte. Maitasunaren gaia da ipuin guztiak lotzen dituen haria. Antologia gazteleraz idatzia dago eta zehazki Euskal Herriatik hiru ipuin aukeratu zituzten. Zorionez, bata neuk idatzitakoa izan zen.

Bestetik, maitasunari dagokionez norberak jakingo du zer uste duen horretaz...

«Poesia sinbolikotzat jotzen dut orain arte idatzi dudana»

B: Zertan pentsatzen duzu olerkiak egiterakoan?

E: Normalean, buruan beti hitz edo irudi bat badut, adibidez, kale bati buruz idazten ari bazara hainbat hitz datorkizu burura: kantoi, kalezulo, karrika, ... Existitzen ez den kale bat. Eta azken batean kale hori metafora bat da. Hala, batzutan Bilbo izan daiteke, beste batzutan Euskal Herria, ni neu ere izan naiteke... Zaila da irakurleak hori berau jasotzea baina posiblea ere bada. Hala ere, nire ustez, poesiaren interpretazioa librea da. Guk idatzi besterik ez dugu egiten, irakurleak nahi duena interpreta dezan. Poesiaren xarma interpretatzean eta nolabaiteko ez jakitean datza. Hori kentzen badiozu, nire ustez, akabo poesia.





HAMAR GALDERA LABUR

- Ipuina ala olerkia?**
Ezustea sortzen duen ipuina eta zirrara sortzen duen olerkia.
- Hiria ala herria?**
Bilbo.
- Mendia ala hondartza?**
Mendialdea.
- Urtaro bat?**
Uda.
- Izen bat?**
- Irune.**
- Musika talde bat?**
The Doors.
- Filma bat?**
Cinema Paraíso.
- Liburu bat?**
La vida del Buscón.
- Akats bat?**
Harrokeria.
- Bertute bat?**
Alaitasuna.

ARTEAREN ETA LITERATURAREN ARTEKO ZUBILANA

Lutxo Egiaren jarduna ez da literaturara mugatu. Zazpi Kaleetako Euskal Txokotik artistak eta literaturagileak elkarrekin lanean jarri zituenetarikoa izan zen. Bera be, idazle gisa, tartean ibili zen, euskal kulturaren munduan nobedade izan zen ekitaldi hartan.

B: Alde Zaharreko Euskal Txokoan zaude murgilduta. Ba al du txokorik bertan olerkigintzak?

E: laz, adibidez, oso gauza polita egin genuen: "Poetak tabernaz taberna". Alde Zaharreko lau taberna aukeratu genituen; bakoitzean musika-jole bat jarri genuen eta berarekin batera bi poeta elkarrekin aritzeko. Tabernarik taberna poetak euren poemak irakurtzen zihoazen musikarekin batera. Azkenean Kalderapekon danak bildu ziren, poemagileak zein musikariak, ekitaldi benetan polita borobilduaz.

B: Literaturagileen eta artisten lanak elkartzea lortu duzu. Zelako esperientzia izan da?

E: Erakusketa handi bat prestatu genuen. Hamalau pintore hamalau idazlerekin batera. Danak bilbotar edo bizkaitarrak. Bikoteka jarri genituen jardunean. Nolabaiteko elkarlana egin behar zuten bien artean. Haien artean elkarriketa bat sortu zen eta honen ondorioz koadroak eta olerkiak edo bestelako lanak batera aurkeztu zituzten. Oso erakusketa polita izan zen eta Bizkaiko herri batzuetara eraman genuen.

ZER PENTSATUKO LUKE DON DIEGOK GAUR EGUNGO BILBO IKUSITA?



GARIKOITZ (SANTUTXU)

Hau ez dela berak ezagututako "villa" hura, Erribera aldea guztiz aldatu da.

ZIORTZA (SANTUTXU)

Uf, zelako aldaketa!



IGOR (TXURDINAGA)

Ez luke ezagutuko, hirugarren sektoreko herria bilakatu denez...



AITOR (SANTUTXU)

Asko aldatu dela. Ziur aski ez zitzaion gustatuko, jende gehiegi dago.




MAITE (SANTUTXU)

Bere hiriaz harro egongo litzatekeela uste dut.



JANIRE (SANTUTXU)

Kriston aldaketa eman dela; nik uste harro sentituko litzatekeela.




ENEKO (SANTUTXU)

Uste dut ez zitzaiola batere gustatuko, pena handia emango lioke.

IÑAKI (SANTUTXU)

Metroa, Guggenheim-a eta itsasadarrak ikusita izutuko litzateke, baina gaztetxeak ikusiko balitu... bere gustu-koak izango ziren.

ASAPALA

KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabiltza

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org

MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

ISOZAKIREN DORRE ERRALDOIEK CASTAÑOSEKO ETXEAK ERE KALTETUKO DITUZTE

Uribitarten altxatu gura duten eraikuntzek ikuspegia galarazo eta geriza eragingo dute Campo Volantíneko ibarrean

Antzinako Depósito Franco zenaren orubean 400 etxebizitzako hamaika eraikuntza altxatzeko proiektuak Campo Volantíneko ibarreko etxeak kaltetuko ditu. Adituek iragarri dutenez, Ibaizabaleko eskuinaldean 80 metro alturako etxetzar bien geriza zabalduko da. Gainera, gaur egungo ikuspegia galarazoko du eraikuntza sorta erraldoi horrek.

Bilboko Udalak honez gero hasierako baietza eman dio Vizcaina de Edificaciones enpresak aurkeztutako egitasmoari. Arata Isozaki arkitekto japoniarrak antzinako Depósito Franco zenaren orubean hamaika eraikuntza altxatzeko proiektua egin du. Guztira bere baitan 400 etxebizitza bilduko duten etxetzarrok 30 eta 80 metro bitarteko alturak eukiko dituzte. Garaienak 80 metroko bi eraikuntzak, Albia eraikina baino 16 metro altuagoak izango dira. Honeik izango dira, zehazki, erreka bestaldean, Mahatserriko ibarrean, eragin gehien sortuko dutenak. Batetik, arkitekto eta bestelako hirigintza adituek aurreratu dutenez, etxetzar bion geriza Campo Volantíneko etxe asko estaliko du. Etxeak ez ezik, ibai ondoko pasealeku bera eta umeentzako joko esparruak itzalpean



geldituko dira. Neguko hotzaz alderdi honen atsegina gal lezake Isozakiren proiektuak. Gerizaz gain, Uribitarteko Depósito Francoko eraikuntzek ikuspegia galarazoko dute. Gaur egun erreka eskuinaldetik Mazarredo zumardiko etxelerro ederraz - Abokatuen kolegioko egoitza, esate baterako- eta zuhaitzez osatutako paisai ikusgarria begi bistan badago ere, Vizcaina de Edificacionesek darabilen asmoa gauzatu ezkerreko etxebizitza erraldoizko harresia baino ez da ikusiko. Abandoko ate gisa aurkeztu du Isozakik bere proiektua baina adituen iritziz atea baino benetako oztupo bihurtuko da.

HIRIGINTZAN ONDORIOAK

Errekaren eskuinaldean eragin nabarmena sortuko badu ere, etxe multzo erraldoiak Uribitarte eta bere inguruak kaltetuko ditu gehien. Adituek Uribitarteko aldapak desitxuratu, Depósito Franco

zenaren azken arrastoak hondatu, Mazarredo zumardiko inguru ederra zapuztu eta erreka-zabalgunea trantsizio egokia desegino direla salatu dute. Sarraskia hirigintzaren ikuspegitik justifikazio bako etxetzar hesi bat eraikitzeke egin nahi dute. Udaletxean EAJ, PP, PSOE, ICV eta EA dira alde agertu direnak. EH kontratua azaldu zen. Proiektuak 27 metro altu izango den etxe bat, 31ko beste bat, 34,5 metroko bi, 36 metroko beste bi, 45 metroko 3 eta, handienak, 80 metroko etxetzar bi. Azken hauen artean Uribitarteko zubizuritik gora igoko diren mailak atonduko dituzte. Isozakik "Puerta del Ensanche" deitu dio ataka honi. Bi etxe altuenak elkarri begira egongo dira eta, ondorioz, erreka euren alborik estuena erakutsiko diote. Gainerako eraikuntzek ibaiari aurpegi emango diote.


ALDEKOEN ARRAZOIAK

Proiektuaren defendatzaileek bi

arrazoi nagusi darabilte. Batetik, aspaldi hutsik, hondaturik eta degradaturik dagoen orubea zuzpertz, zaharberitu eta hiriarentzat irabaziko dute operazio honen bitartez. Ezin ahaztu Uribitarte Bilbo berriaren bihotzean dagoela, Guggenheim museotik oso hurre eta erreka ondoan txukuntzen diharduten kaian bertan. Pasealeku ederraren erdian ezin eraikuntza hondatua begi bistan laga. Bestalde, proiektuaren alde dagoeneko Isozakiren prestigioa eta bere proiektuaren kalitatea goraiatzen dute. Izan ere, arkitekto japoniarra mundu zabalean da ezaguna eta adituen iritziz oso eraikuntza lirain eta galantak diseinatu ditu.

AUZOAK ETA ARKITEKTOAK

Arazoioak, hala ere, ez dira izan oposizioa ekiditeko bezain indartsuak. Inguruetako auzoak, batez be Mazarredo zumardiko bizilagunak, baina baita Campo Volantínekoak be, protestabideak atontzen hasiak dira honez gero. Talde bat osatu dute eta proiektua zelaz geldiarazi aztertzen ari dira. Bizkaiko arkitektoen elkargoak, bere aldetik, batzarra egin zuen ekainaren 6an eta Isozakiren proiektua justifikazio bako dela irizita, alegazioak aurkeztea erabagi zuen. Hogeita hamarretik gora arkitekto batu zen orduan, tartean Isozakiren proiektua gure artean aurkeztu duen Iñaki Aurrekoetxea zelarrik.



Deposito Francoren geriza Campo Volantíneko etxeen gainean gaur egun

ESPEKULAZIO HATSA, BESTE BEHIN

Depósito Franco izan zenaren orubea eta eraikuntza bera 1989 urtean espekulazio operazio batean erabiltzeko baimena eman zuen Bilboko Udalak errekalifikazio baten bidez. Handik gutxira operazio horren ostean iruzur handi bat zetzala ageri-agerian gelditu zen, bultzatzailea ihesi joan ostean. Orduetik hona Uribitarteko espazio pribilegiatu honek hutsik eta alperrik balduta eman ditu urteak.

Oraingo proposamena sorta luze baten azkena baino ez da. Denak euki dute helburu berbera: 1989an baimendutako bulego eraikuntza egin beharrean - gaur egun ez dago horretarako demandarik- 400en bat etxebizitza egin ahal izatea. Bilboko Udalak aurreko eskariei muzin egin badie ere, oraingoan baietzaz erantzun du. Bigarren errekalifikazioa abian da. Euskal Herritarrok udal taldeak operazio osoak ekimen pribatuari etekinak bermatzea beste helbururik ez duela salatu du. Horretarako Isozakiren proiektua Plan Orokorrari -Bilboko hirigintza zuzentzen duen arau- egokitu beharrean plana bera izango da arkitekto japoniarraren egitasmoaren arabera moldatuko dena. Gainera, EHk dioenez, Bilboko Udalak oso merke eskuratu ahal du orube hori eta hiriak dituen beharrianak betetzeko erabili gero.

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA

Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

ARTESANIA LOIDI

Santo Rosario, 1 (Santutxu)
Tlf.: 94 473 10 65

ONDO PASA SANTUTXUKO JAIK!

Baserritik
etxerainoko
OKELA ZERBITZUA

Eskaerak egiteko:

- Telefona eta Faxa: 94 433 48 02
- Orduetgia: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara

E.H.N.E.

BASERRITIK ETXERA: EUSKAL ZERBITZU ZOHETZUA
Tulorrieta, 11. 40.300 LEMOA. Tfnoa: 94 631 43 04

ESKOLEN ARTEKO BERTSO TOPAKETAK

Urzi eta Itziar (Txurdinaga eskolako ikasleak)

Txurdinaga eskolan, Ekainaren 6an Bilboko Eskolen Arteko BERTSO TOPAKETAK izan ziren bertsolariek antolatuta. Hogeita lau eskoletako ikasleak etorri ziren, eskola bakoitzetik talde bat. Lehenengo, bertsoak zortziko txikian egin genituen. Gero, Santutxuko bertsolarien bertsoak entzun genituen frontoian. Opariak banatu zizkiguten eta Bernak gitarrarekin jotzen zituen abestiak entzun genituen. Azkenik, bokadiloak eta ur botilak eman zizkiguten eta bapobapo jarri ginen.




KARMELO IKASTOLAREN JAIALDIA

Karmelo ikastolak urtero lez ikasturteari amaiera emateko orduz kanpoko ekintzetan ibilitako neska-mutilen jaialdiak burutu ditu. Maiatzaren 26an musika agerraldia izan zen, bertan XIRULA MIRULAn dabilzkanak aritu ziren lehenengo. Umeen saioa amaitzeko KARMELO IKASTOLAKo kanta abestu zuten denok batera, argazkian dakusazuen lez. Kantaren letra Iñaki Aurrekoetxeak egin da eta musika, berriz, Xabier Aburruzagak. Honexek eraman zuten jaialdiaren bigarren zatia, Trikitiarearena, hain zuzen ere. Umeez gain aitaren bat ere taulara igo zen.



LEHEN HEZKUNTZAKO UME IJITOENTZAT DIPLOMAK

Kale Dor Kayico -Biharko Ijitoak- elkarteak diplomak eman zizkien ekainaren 15ean Begoñako auzo etxean lehen hezkuntzan diharduten ume ijito batzuei. Ekitaldian hainbat agintari eta hezkuntza alorreko arduradun agertu zen. Antolatzaileen iritziz oso garrantzitsua da umeok eta euren familiak hezkuntzan segi daitezen motibatzea.



BOSGARREN ASTE ANTIMILITARISTA SANTUTXUN

Ekainaren 3tik 9a bitartean Aste Antimilitarista antolatua zuten Santutxu eta Boluetako Kakitzat taldeak. Militarismoaren aurkako astea hainbat ekimenek egon da osatua. Hala, erraldioak, hitzaldiak, kontzertuak, zein kartel erakusketak ikusgai egon dira Santutxuko txoko eta bazterretan. Batez ere, Sorgintxulo gaztetxean. Antolatzaileen esanetan, balorazioa positiboa da erabat, herritarren erantzuna ikusita eta mezu antimilitaristak oraindik ere oihartzun zabalagoa erdietsi duelako.

ANDER LIPUSEN ARRAKASTA KULTUR ERROTAN

Maiatzaren 25ean hasi zen biraka Mahatserrian Euskara Elkarteen eta Herri Aldizkarien Topagunearen Kultur Errota. Asapalaren eskutik Ander Lipus aktorea Sorgintxulon aritu zen 70en bat lagunen aurrean. Bere baka-rrizketa, mozkorraren ganean jarria, ikusleen gustagarri izan zen eta txalo zaparrada polita merezi zuten amaieran. Kultur Errotaren bigarren ekitaldia ekainaren 16rako iragarrita zegoen. Kasu honetan Xabier Amurizaren ardurapean "Lazkao Txikiren antologia" aurkeztu zuten mahatsorrien aurrean. Errotaren jirabirak uda ostean segituko du.

SANTUTXUKO JAIK 2000 UZTAILAREN 8TIK 16RA

LARUNBATA 8

- 19.30- Segizioa Karmelon hasita
- 20.00- Pregoia eta txupina Basarraten
- Santutxuko Hockey taldearen eskutik
- 20.30- Afari-merienda Basarraten
- 22.00- Kontzertua Sorgintxulon
- 23.00- Berbena Basarraten
- Suan Blai taldearekin

- 18.30- Rappel, tirolina eta txalaparta Karmelo plazan
- 19.00- Kuadrilen arteko Jinkana
- 20.00- Tailerrak Karmelo plazan
- 20.00- Bertsolariak Basarraten
- 21.00- Parrilada Basarraten
- 22.00- Erromeria Basarraten. Mundiñano anaiak

IGANDEA 9

- Goizean: Artisau erakusketa Karmelo kalean
- Txistulariak auzoan zehar
- Eguerdian: Marmitako lehiaketa Basarraten
- Arratsaldean: Gaiteroak auzoan zehar
- 20.00- Umeentzako berbena Basarraten Sopa de Croquetas taldeagaz
- 23.00- Zinema Sorgintxulon

OSTEGUNA 13

- Goizean: Futbito txapelketa
- 12.00- Gargantua barraken gunean
- Arratsaldean: Mus, tute, partxis lehiaketa
- Futbito txapelketa
- Gaiteroak auzoan zehar
- 19.00- Graffiti erakustaldia Karmelon
- 20.00- Antzerkia Basarraten "Tenderete"
- 21.00- Larrain Dantza Basarraten
- 22.00- Play-back lehiaketa Basarraten
- 23.00- D.J.ak Basarraten

ASTELEHENA 10

- Goizean: Futbito txapelketa Hockey zelaian
- Arratsaldean: Mus, tute eta partxis lehiaketa Basarraten
- Futbito txapelketa
- Fanfarrea auzoan zehar
- 18.30- Rappel, tirolina eta txalaparta Karmelo plazan
- 20.00- Ipuin kontalaria Basarraten. Auskalo taldea
- 22.00- Antzerkia Basarraten "Las Fellini's"

OSTIRALA 14

- Goizean: Futbito txapelketa
- Arratsaldean: Mus, tute, partxis lehiaketa
- Futbito txapelketa
- Txistulariak auzoan zehar
- 19.30- Umeentzako antzerkia Karmelon. "Castaña Pilonga"
- 22.00- Kontzertua Basarraten "Dut" eta beste talde bat.

ASTEARTEA 11

- Goizean: Futbito txapelketa
- 12.00- Suhiltzaileen bitsa barraken gunean
- 15.00- Paella lehiaketa Sorgintxulon
- Arratsaldean: Mus, tute, partxis lehiaketa
- Futbito txapelketa
- Fanfarrea auzoan zehar
- 19.00- Antzerkia Sorgintxulon
- 19.30- Kuadrilen arteko herri kirolak
- 21.00- Auzotik kalejira "Elektrotunarekin"
- 22.00- Auzoko taldeen kontzertua Basarraten

LARUNBATA 15

- Goizean: Futbitoko finalak
- 13.00- Herri kirolak Karmelo plazan
- Arratsaldean: Gaiteroak auzoan zehar
- 20.00- Gaztedi dantza taldea Hockey pistan
- 22.00- Antzerkia Basarraten
- 23.30- Errepresaliatuen aldeko kalejira
- 00.30- Berbena Basarraten "Urgabe"

ASTEAZKENA 12

- Goizean: Futbito txapelketa
- Arratsaldean: Mus, tute, partxis lehiaketa
- Futbito txapelketa
- 18.00-20.00- Tailerrak Karmelo plazan

IGANDEA 16

- Goizean: Fanfarrea auzoan zehar
- Eguerdian: Makailo lehiaketa Basarraten
- Arratsaldean: Berbena Basarraten
- Jaien bukaera Basarraten

Aste osoan zehar -barikua bitartean- argazki lehiaketarako lanak entregatu ahalko dira. Sari banaketa domekan egingo da.

E R R I K A R I A K

E R R I K A R I A K

JAI GIROA NAGUSITU ZEN BEGOÑAZPI IKASTOLAREN JAI HANDIAN.
EKITALDI UGARIK JANTZI ZIOTEN IKASTOLARI KOLORE ETA ADORE; DOINU ETA SOINU.

BEGOÑAZPI IKASTOLA ETXEAN ETA ATZERRIAN

Maiatzaren 27an Begoñazpi ikastolak bere jaia ospatu zuen giro ezin hobean. Ekitaldiak ikastolan zehar zabaldu ziren. Sarrerako jolastokian gaztelu puzgarriak, ohe elastikoak eta txikientzako korrepasilloak umez bete ziren lehenengo orduetatik. Horien ondoan hainbat esku lantegi ikus zitezkeen, bertan gomaespumaz kapel hegal-zabalak eta abar egin zituzten gaztetxoek.



Ikasleek talde-argazkia egin zuten

Ikastola barruan, berriz, urtean zehar ume eta gaztetxoek esku lanak erakusgarri jarri zituzten. Bi urteko haurrek egindako marrazkiak, buztinez egindako txarroak eta ontziak, mozorroak, aitarentzako gorbatak ikusgai egon ziren. Baita ikasle handiek egindako ikastolaren maketa, mozorro eta bestelako lanak ere. Eta, jakina, argazki sorta ederra ikasturtean egindako urteera, txango eta ibilaldiek isla izan

Ikastolako eskilarak igota, aterpean txosnak pintxo eta edari bizigarriak banatzen zituen. Hori bai, aurretik pezetak euskoekin trukatu behar ziren. Hori guztiori euskal musikaz blaiturik. Egia esan eguzkiak bixi-bixi jotzen zuenetan zail samar izaten zen lekua egitea. Aurreko egunetako eguraldia ikusita txarrena aurreikus zitezkeen arren Begoñako amatxoren bitartekaritzak fruituak eman zituen



Jaiaren une bat ikastolako patioan

zezaten jaialdian.

Barruan bertan goizari amaia emateko bazkari ederra egin zuten. Ehundik gora lagun bildu ziren.

Eskaini zitzaigun aukera alperrik galdu gabe kiroldegi berria ikusi genuen. Zabaltze ofiziala irailerako utzi badute ere Euskal Herriko eguraldiak eta aurreko egunetan botatakoak bertan ekitaldi batzuk egitera bultzatu zituen. Zuzendariak esan zigun bezala aurreko gauean ere zurrin zarran ihardun zuten azken ikutuak ematen jai egunean den-dena Txukun izateko. Zelai nagusian, gehien bat euskal dantza eta musika izan ziren. Ikus-entzuleak aurreko harmailetan zeuden, argazkian ikus dezakezuen lez.

Ikasleen lanen erakusketa




COMENIUS PROGRAMA

Jaialdiak bestelako jakinmina sortu zuen Europako beste hiru herrialdetako neska mutilak bertan izan baitziren Comenius programari esker. Programa honetako partaide da BEGOÑAZPI IKASTOLA eta urtero herrialde eta gai bat hartuta hara zuzentzen dira elkarraldiak egiteko.

Aurten Austriako Viennatik, Ingalaterrako Londonetik eta Danimarkako Ikaalinendik etorri dira Mahatserrira, Begoñazpi ikastolara, hain zuzen ere. Hautatutako gaia, berriz, ingurugiroa zen. Hori dela eta ikastolan nonnahi ikus zitezkeen ikasleek egindako horma-irudiak non inguru giro eskubideak (Right to the environment) agertzen ziren euskaraz eta ingelesez.

Jai egunean Esther Solabarrieta Aldundiko inguru-giro arduraduna bertan izan zen umei harrera egiteko eta solasalditxo bat izateko. Udalaren aldetik Elisabete Bizkarralegorra Hezkuntza arduraduna bertan izan zen.

Nahiko egitarau zabal izan zuten:
Ostirala 26a: Bilbo ikusi: alde zaharra, Ibaigane, Guggenheim eta Herri irratian elkarrizketa.
Larunbata 27a: Erakusketa eguna. Bazkaldu ostean Bizkaiko zubira eta Getxoko portura.



Maria Esther Solabarrieta Aldundiko Ingurugiro arduraduna



Frontoian jaialdia

Igandea 28a: Butroi gaztelua, Bermeo, Gernika eta Juntetxea.

Astelehena 29a: Udaletxean Harrera, Julia Berrojalbiz saria eman baitiete. Ondoren Begoñara.

Asteartea 30a: Donostia. Aquariuma.
Asteazkena 31a: Agurra.

Beste herrialdetako ikasleek Plentziako egoitzan, aterpetxean izan zuten ostatu.

Ikasleek eurek esan ziguten bezala hasiera hotz izaten da baina egunak joan ahala harremanak asko sakontzen dira. Gainera aurten ez ziren berriak aurreko urteetan eurekin ibilitakoak baitziren.

DAYTON
Reagge-festa
taberna
Santutxuko poteo gunean


ekilore
Iturriaga, 92 Santutxu

BASTERTXU

TABERNA
Ricardo Bastida plaza


AITZGORRIGANE (1.090 m.) Urigoititik

Orozkorako bide nagusitik joatean Zubiaur auzoan ezkerretarantz ateratzen den errepidea hartuko dugu Ibararantz. Hona heldu eta gero errepideak gorantz jarraitzen du Urigoiti auzoraino. Bertan utzi genuen autoa (A).

Eliza ondotik irteten den bidea hartu eta apur bat aurrerago, aterpe ondoan ezker aldetik abiatzen den pistari jaramonik egin gabe aldapa gogorra hasten den lekura joango gara. Ia hasieran urgordailua dago; haren ezkerretik eta gorantz beste pista bat joan arren, gu ekarritako bidetik igoko gara pinu artean. Pinudia amaitzen denean burdinazko atea (B) zeharkatu eta gorantz jarraitu goian dagoen pista lortu arte. Orain eskuinalderantz joko dugu eta beste burdinazko ate (C) bat zeharkatu ondoren "Haitzen" behealdean aurkituko gara. Ezker aldetik hesi bat doa eta basoa hasten da; bertan elorri beltza, pago eta mota askotako sastraka ikus daiteke. Inguruan "Egale Suburu" izenez ezagutzen den iturria dago (D).

Hesi ondotik igoez, ezkerretik Pagomakurrerantz doan bidea utzi eta gero "Atxular"-pean egongo gara. Hemen "Atxular" izenez ezagutzen den iturburu topatuko dugu. Berau ikustea, hala ere, ez da erraza zeren eta harlauza batez estalirik baitago. Honen arrazoa abereengandik zaintzea da (zain dezagun guk ere).

Atxular begitik (E) igaro ondoren beherantz joan beharko dugu, laster bidebanatze batetan aurkituko garelarik: ezker aldera doana "Itxina" zeharkatuz "Arraba"ra doa; guk oster, beherantz eta eskumalderantz joko dugu, bidexka ikurrez beteta dago. Bidegurutzetik hamar minututara antzinako etxola baten aztarnak ikusi behar ditugu eta hemen bertan bitan banatzen da bidea: ezkerrekoa "Supelegor" haitzulo edo kobazulora doa, guk ordea eskumalderantz doana hartu beharko dugu



(F), beti ikurrak jarraituz; horrez gainera "Aitzkorrigane" izena ikusiko dugu idatzita harrietan eta bi toki desberdinetan. Laster "Urtutxe" (1.068 m.) mendia lortuko dugu. Hemendik berehala, beti ikur gorriak jarraituz, "Aitzgorrigane" (1.090 m.) tontorrean egongo gara. Ibilbide guztia ordu bat eta hiru ordu laurden. Txartel kutxa dago eta honen ondoan bi jaiotza.

Azkenaldiko kirol kontuak

Unai CUEVAS

Ale hau ateratzen denerako uda hasita egongo da jada. Eta Uda-rekin batera, kirol askoren denboraldien bukaerak bat egiten du, hala nola eskola arteko saskibaloiak, futbolar, eskubaloiak, aretoko futbolar ... Horien artean aipagarriak dira futboleko lortutako emaitza positibo batzuk. Honela, alebin kategoriako bigarren mailako hirugarren taldeko Santutxu B txapeldun atera da, eta honekin batera talde eta maila bereko baina kadete kategoriako Begoña

B baita ere. Halaber, infantil mailan eta "Piru" Gainza peñak antolatutako oinarri futboleko bigarren torneoan, Santutxuk finalean Galdakaoko taldeari irabazi egin zion.

Bestetik, eta Euskal Herriko eskola arteko futbolar dago-kionez, Otxarkoagako E.P.-k bigarren postua lortu du, Lauro ikastolaren atzetik geratu ostean. Futbolarekin harremana duen omenaldi bat ere burutu izan zen ekainaren hasieran Mallona futbol zelaian. Bertan, mila pertsona inguru bildu ziren 20 urtetan Santutxu futbol taldeko presidentea izan zen Fernando Grijalbari azken agu-



Hogei urtetan Santutxu F.C.-ko presidente izandako Fernando Grijalbaren omenez Mallonan jarritako plaka

zako, bertaratuek Santutxu eta hirugarren mailako jokalariz osatutako Euskadiko 23 urtez azpiko selekzioaren arteko partidua gozatu ahal izan zuten.

Gogoratu Fernando Grijalba Larramendi eta Santutxuko atezaina izan zela eta Santutxuko presidentzian 20 urte egin ondoren Bizkaiko futbol federazioa pasatu zela. Federazio honetatik Euskadiko federazioarako pausua eman zuen; bertan antolatzaile lanetan aritu izan zen, hirugarren mailako taldeen koordinazioaren kargu egin zelarik.

EUSKAL BIZIKLETA MAHATSERRIAN

Kirolaz aldatuz, ezin dezakegu ahaztu Euskal Bizikletaren hirugarren etapa Mahatserriko Txurdinaga auzora heldu zela. Helmugan. Serpellini italiarra izan genuen garaile, sprint borrokatuan Txente Garcia Acosta nafarrari gailendu ostean. Biasterin hasitako etapa haizez eta euriz jantzitakoa izan zen eta sailkapenerako ez zuen inolako aldaketarik suposatu. Faboritoen tropela, David Etxebarria abadiñotarra buru zela, Serpellini eta Txente heldu eta bi minutura sartu zen. Etapa bukaeraren eta hurrengo eguneko etapa hasieraren antolakuntza Santutxuko txirridulari elkartearen esku geratu zen. Beraien lana aipatzekoa izan zen.



Euskal Bizikletako tropela Txurdinagako helmugara iristean. Marisol Ramirez argazkia.

Honekin batera, maiatzaren bukaeran ere Begoñako auzo elkartekoek antolatutako bigarren kross herrikoia ospatu zen. Iaz, jendearen aldetiko izandako erantzun ona ikusirik errepikatu egin zuten eta aurtengoan ere erantzuna positiboa izan zen.

SANTUTXU HOCKEY EZ DA IGO

Santutxuko Hockey Taldeak ez du lortu lehenengo mailarako igoera txartela. "Play off"eko partidu guztiak jokatu ostean hirugarren gelditu zen, lehenengo biak galdu eta gero. Santutxuarrek igotzeko aukera lortu

zuten Liga Norte deritzona irabazi eta gero baina Asturiasen jokatu den ligaskan ezin izan dute plantila osoarekin kontaktu. Egia esanda, zazpi jokalarik ez du euki entrenatzaileak bere aginduetara.

horoskopoa

- Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Dena beltza ikusten duzula? Lasai, laster hobetuko da zure egoera; beraz, alaitu ezazu aurpegi hori!
- Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Nagusiekin arazoak izateko arriskuan zaude. Arnasa hartu eta aurrera segi, oporrak hementxe daude eta.
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Zure urtebetetzea ospatzeko garaia da. Presta ezazu parranda on bat lagunekin, merezi duzu eta!
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Bainujantzia jartzeko beldurrez dieta zoro horietako bat hasteko asmoz? Kendu burutik hori, ezin hobeto zaude eta.
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
San Juan gaueko suaren aurrean eskatutako desio hori bete dadin zure aldetik ere zeozertxo ipini beharko duzu, ezta?
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Hondartza denboraldia aprobetxa ezazu bai, baina kontuz ibili eguzkiarekin, berehala zimelduko zara bestela!
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.
Ez zaizu komeni horrenbeste ordu liburutegian sartuta ematea, irten zaitetz aire pixkat hartzera. On egingo duzu.
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Ez al zenuen aurrean gidatzeko baimena ater behar? Eta? Zeren zain zaude? Zoaz arin autoeskolara, oraindik garaiz zabilteza eta.
- Sagittarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Oporretan joateko dirua ez da zerutik jautziko, baina zuk loterian jokatu, badaezpada ere... Inoiz ez dago jakiterik.
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
"Gran Hermano" gutxiago ikusi eta gehiago ikasi izan bazenu... Hurrengorako badakizu zer egin, edo bestela, txuleta onak prestatu behintzat, Berrizkoak edo!
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Bikoterik ez baduzu, oraintxe duzu garai egokia baten bat bilatzen hasteko; baina mugi zaitetz, beranduegi izan baino lehen...
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Zaindu zure elikadura, badakizu: gorputza puntuan jarri behar duzu udako parranda guztiei aurre egin ahal izateko.

agenda

EKAINA

EKAINAK 25: EGUZKI LOREA mendi taldearen inddaba jana, hamargarren urteurrena dela eta.

EKAINAK 26: BILBOROCK: Gloria Fuertesi omenaldia. Esther Esparza: "Versos con faldas". Bizkaiko lesbianen kolektiboa.

EKAINAK 27: BIDEBARRIETA KULTURGUNEA: 19,30etan, "Una lectura liberal del nacionalismo". Hizlari: Joseba Arregi.

EKAINAK 27: BILBOROCK: 20,00etan: EHGAM: "Bertso Deseo". Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Igor Elortza.

EKAINAK 28-30: ARRIAGA ANTZOKIA: 20,00etan Antzerki musikala: "Amadeus", Peter Shaffer-ena.

EKAINAK 28: BILBOROCK: 20,00etan, antzerki-zinema: "Recuerdos en color" (antzerkia)/"Roto"- "La incesante búsqueda del joven Nadie"- "Carlos Rivas" (laburmetraiak). Claro de Luna elkarte.

EKAINAK 28: KAFE ANTZOKIA: 22,30etan. Askapen gay eta lesbianaren eguna.

EKAINAK 29: KAFE ANTZOKIA: 20,30etan. Euskadi Gaztearen kontzertua: "Labrit", "Lau Behi".

EKAINAK 30: BILBOROCK: 21,30etan, kontzertua: "Trailer Park Casanovas", "G.I".

EKAINAK 30: KAFE ANTZOKIA. 22,00etan, kontzertua: "Barraca Selva".

UZTAILA

UZTAILAK 2: EGUZKI LOREA mendi taldearen irteera: Betsaide-Anboto Apata-monasteriotik.

UZTAILAK 8: SANTUTXUKO JAIAK: Txupinazoa.

Ibilaldia 2000
Balmaseda

Mendez mende
zubiak eraikitzen

Ibilaldia 2000
Balmaseda